

8,7 milioi euroko aurrekontua onartu du Urretxuk 2017 urterako

Urretxuko udalak atzo EAJ eta PSE-EEko botuei esker, -EH Bildu abstenitu zen eta Irabazik kontra bozkatu zuen- 2017 urterako prestatu duen aurrekontua onartu zuen osoko bilkuran. Hortaz, 8,7 milioi euro izango ditu udalak, iaz baino %8,75 gutxiago, batez ere, operazio urbanistiko gutxiago planteatuko direlako, zergak eta foru funtsetik datorren ekarpena izoztu direlako.

Gainera, Urretxuko Udalak hainbat kredituri egin behar die aurre, guztira 481.000 euroko zenbatekoa (amortizazioa + interesak); 2019ra bitartean udalaren karga ekonomiko-finantziario haundiena izango delarik.

Halere, Urretxuko udalak 455.370 euroko inbertsioak egiteko asmoa du. Horien artean, azpimarragarrienak, San Martin auzoko haur-jolasen gunea estaltzeko 100.000 euroko partida bat txertatu da, 2017 urteko lehen hiruhilabetean egitea espero dena.

Era berean, auzoetan egin beharreko obren barruan, kopuru garrantzitsu bat aurreikusi da Aparicio auzoan fatxadak berritzeko eta margotzeko diru-laguntzetarako.

Eta igerilekuko obra eraikitzeko partida. Gaur egungo instalazioen hondamen egoerak 2017an erabaki bat hartzera behartzen gaitu. Baina Urretxuko Udalaren egoera ekonomikoaren ondorioz ezinezkoa da obra haundi bat egitea, Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntzaren bat ematen ez badu. Partida irekia uzten da, eta emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ezagutu bezain pronto (hala baldin bada), partida handitzeko eta obra egiteko.

Urretxuko Udalak kontsumo baxuko argiak (LED) aldatzeko politikarekin jarraituko du eta zabor-ontzien gunek hondakinak biltzeko sistema berriari egokituko ditu, herritarrentzat irisgarriagoak izan daitezzen.

Departamentuetan administrazio orokorrean eman da igoera, Urretxuko Hirigintza Plan Orokor berria idazteko ehun mila euroko partida, 2 ekitalditan mantendu beharko dena. Udaltzaingoa urterako berritasuna ibilgailu berri bat erostea da eta udal gobernu organoetan EH Bilduk eskaturik oposizioko zinegotzi baten liberaziorako partida ireki da.

Partaidetza

Aurrekontua osatzeko urretxuarren partaidetza izan du, 16 bilera egin dira non 165 pertsona elkartu diren eta Udalak egun aztertzen ari den 120 ekarpen inguru egin zituzten.